



IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Ehun liburu mende baterako: Ipuin sendagarriak

Jenifer Mulero Molinillo
jenifermulero@gmail.com

Gema Lasarte Leonet
gema.lasarte@ehu.es

To cite this article:

Mulero, J. & Lasarte, G. (2015). Ehun liburu mende baterako: Ipuin sendagarriak. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 15, 119-150.

Retrieved from http://www.ehu.es/ikastorratza/15_alea/ipuin.pdf

To link to this article:

http://www.ehu.es/ikastorratza/15_alea/ipuin.pdf

Published online: 20 Dic 2015.

Ehun liburu mende baterako: Ipuin sendagarriak

Jenifer Mulero Molinillo

jenifermulero@gmail.com

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea (UPV/EHU)

Gema Lasarte Leonet

gema.lasarte@ehu.es

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Lan honen bidez, Haur Literaturaren barnean ipuinek izan dezaketen erabilera terapeutikoan sakonduko da. Ipuinaren ezaugarriak direla eta, nahastuta sentitzen den pertsonari laguntzen dio, hau da, duen gatazka islatuko du bere garapenerako egokia den kontakizunaren bitartez, ondorioz, honen sorreraren zergatia bilatzen eta aurkitzen lagunduko dio. Ikerketa honek ehun liburu sendagarrien aukeraketa sortzea izango du helburu. Horretarako, hurrengo orrialdetan, Haur Literaturaren kontzeptua argituko da bere jatorri eta funtzioei erreferentzia eginez. Ondoren, ipuinen psikoanalisian eta psikodrama sinbolikoan zentratuko dugu gure lana. Lanari bukaera emateko, burututako ipuinen aukeraketa ahalik eta egokiena izateko, zenbait irizpide zehaztu eta jarraituko dira. Jasotako emaitza eta ondorioak aldagai horietan oinarrituta egongo dira.

Hitz gakoak: Haur Literatura, ipuinak, psikoanalisi, sinbologia, gatazkak, funtzio terapeutikoa.

Resumen

Mediante este trabajo, nos centraremos en la función terapéutica que tienen las historias infantiles. Debido a los elementos que contienen, estas historias reflejan el conflicto de aquella persona que se siente confundida, de una manera que se adecua a la edad del lector. De esta forma, le ayudara a comprender el origen de su conflicto y, así encontrar la manera adecuada de solucionarlo. Por ello, el principal objetivo del siguiente estudio consistirá en la elección de cien libros destinados a la cura de dichos conflictos. De esta manera, en las próximas líneas, se tratara de aclarar la conceptualización de la Literatura Infantil, haciendo referencia a su origen y sus diferentes funciones. Para continuar, centraremos nuestro trabajo en el psicoanálisis de

los cuentos infantiles, así como en el psicodrama simbólico. Dando fin a este trabajo, concretaremos diferentes criterios para la elección de los cuentos nombrados anteriormente.

Palabras clave: Literatura infantil, cuentos, psicoanálisis, simbología, conflictos, función terapéutica.

Abstract

Through this essay we will focus on the therapy function that the stories for children have. The parts and elements that these tales include, show the conflict that the person that feels confused have, in a correct way for the age of the reader. So he can understand the origin of this conflict and thus find the best way to solve it. The main purpose of this study lies in selecting one hundred stories used to treat these conflicts. Thus, in the following lines, Children's Literature will be defined referring to its origin and different functions. Later, we will concentrate our study on the psychoanalysis of children's stories and the symbolic psychodrama. Coming to the end of this essay, we will suggest different criterion recommended for the election of the stories we have chosen previously.

Key words: Children's Literature, tales, psychoanalysis, symbology, conflicts, therapeutic function.

1. Sarrera eta justifikazioa

Haur Literaturaren bidez, fantasiako mundu batean murgiltzen gara, hizkuntzaren oinarriaz jabetzen gara eta giza ezagutza lortzen dugu. Ipuinek gizakiaren gaitasunak garatzeko eta dituzten beharrak asetzeko balio dute. Hainbat funtzio ezberdin izateaz gain, gure ondare kulturala ezagutzeko baliogarriak dira, beraz, haurra gizarteko partaidea dela sentiarazteko balio dute. Kontakizun hauek aurreko belaunaldiekin harremanak ahalbidetu eta ingurunea ezagutzeko prozesuan eragin handia izango dute. Beste hitz batzuetan esanda, ipuina gizakiaz gogoeta egiteko elementua da, mundua ulertzeko tresna da.

Beraz, gaur egun ezagutzen dugun generoa bihurtu arte Haur Literaturak bizi izan dituen bihurduak ezagutzea ezinbestekoa suertatzen da mundu honetan murgiltzeko eta literatura behar bezala ulertzeko. Halaber, genero honek orain arte izan duen erabileraz hausnarketa egitera eramaten gaitu. Horretarako, psikoanalisiak ematen duen ikuspuntuan zentratuko dugu gure ikerketa, atal hau ipuin sendagarrien bilduma osatzera bideratuta egongo delarik. Bilduma honen helburu nagusia haurrak dakiena zalantzan jartzea da, kontakizun ezberdinetako gertaeren bitartez gogoeta sakonak egitera, ondoren, norberaren barne-gatazkak gainditzeko modu propioak aurkitu ahal izateko. Hori dela eta, hurrengo orrialdeak hiru zutabeetan antolatuko dira: marko teorikoa, liburuen hautaketa eta amaierako ondorioena azkenik.

Marko teorikoak hiru bloke nagusi izango ditu: Haur Literaturaren jatorria, funtzioak, eskolako liburutegia eta ipuinak eta psikoanalisiak. Psikoanalisiari dagokion blokean, metodologiaren oinarriak definitzen ahaleginduko gara eta horretarako sinbologiaren interpretazioan murgilduko gara. Ondoren, ipuin sendagarriak hautatzeko argibideak azalduko dira behaketa taula baten bidez. Honi jarraituz, jasotako emaitzak azalduko dira. Bukatzeko, jasotako emaitzak eta ateratako ondorioak argituko dira, eta ikerketa hau hobetzeko proposamenak aipatuko dira.

2. Marko teorikoa

2.1. Haur Literaturaren kontzeptualizazioa

Gaur egun Haur Literatura gero eta gehiago jorratzen ari den gaia da. Hala ere, Xabier Etxanizek (1996) bere lanean zehazten duen bezala, kontzeptu honen definizio egoki bat egitea zaila da, haurtzaroak eta gaztaroak aski bereak dituzten ezaugarri bereziengatik bada ere. Adituak hitz gutxitan azaltzen du:


Haurtzaroa da gizakion bizitzan aldaketa handiena gertatzen den garaia, gure esperientzia eta bizipena garai txiki batean biderkatu, hirukoiztu egiten da, munduaz dugun ikuspegia aldatu, gure espektatibak handitu, ezberdindu, aldatu, eta esperientzia, baita literarioa ere, gehitu. Haurra zein gaztea garatze prozesu batean guttuz sarturik dagoen gizakia da, etengabeko aldaketan, eta ezaugarri hauek zaildu egiten dute haur eta gazte literaturaren kontzeptua zehaztea, beraien definizioa zaila den neurrian (Etxaniz, 1996:18).

Dena den, aditu asko izan dira arloaren definizioa osatzen ahalegindu direnak. Aipatzekoa da Peter Hunt ikerlari ingelesak aurkezten duen definizioa:

Children's literature, disturbingly enough, can quite reasonably be defined as book read by, especially suitable for, or especially satisfying for, members of the group currently defined as children (Hunt, 1995 : 61).

Finean esanda, Haur Literatura haurtzaroan dauden pertsoneri zuzentzen zaie berariaz, eta adin-tarte horretako neska-mutilentzat egokiak eta atseginak diren liburuek osatzen dute.

1. Grafikoa: Liburuen ekoizpena



Iturria: (Etxaniz, 1996:28)

Etxanizen (1996) arabera, helburu komertzialak hain handiak izateak eta haurra kontsumitzailerat hartzeak haurraren harrera estetikoaz ahaztea, adiera-moldeak ez zaintzea eta literatur estiloa bigarren maila batera pasatzea bezalako emaitzak eragin ditzakete. Interesen arabera sortutako literaturari buruz hitz egiten ari gara, saltzeko asmoarekin idatzita edo moldatuta dagoenari buruz, hain zuzen ere.

Halaber, literatur genero hau hurrei zuzenduta dagoenez, mesprezaturia izaten da edo helduentzako literatura baino kalitate gutxiagotzat hartzen da. Alabaina, jatorrizko ipuinak helduentzako kontakizunak direla eta pairatu dituzten aldaketen ondorioz, Haur Literatura bihurtu izan direla buruan izan behar dugu. Joxemari Iturraldek (1996) aipatzen duen moduan, "Kontua da literatura ona bada, kalitatezkoa, ez duela adinik" (Iturralde in Etxaniz, 1996: 4). Horrela, Haur Literatura ez da hurrek soilik irakurtzen, ulertzen eta disfrutatzen duten literatura; helduok ere irakur, uler eta goza dezakeguna baizik.

Horren ondorioz, helduen literaturan erabilitako irizpide berberak erabil daitezke hauetan ere, baina horretaz gain beste hainbat alderdi har daitezke aintzakotzat. Teresa Colomer-ek (2010) bere lanean, hainbat aldagai eta funtzioen artean, kalitatezko Haur eta Gazte Literatura lantzeko azaltzen duen irizpide nagusietariko bat hartzailearen ulermen gaitasuna da, ez bakarrik hizkuntz irizpideen baitan, baita kultur esperientziaren, jakituriaren, edota gure itxaropenaren arabera ere.

Colomerren azalpen honek Jerome Bruner-ek (1990) definitutako andamiajearen kontzeptuarekin bat egiten du, hau da, istorioek eskemen bidez aurretik dakiguna osatu eta zabaldu behar dute. Hurrek irakurtzen edo entzuten dutena ez da ez zailegia ezta errazegia izan behar ere. Zailtasun egokia izatekotan, haurraren motibazioa mantenduko da, interesa piztuko da eta aldi berean kontzeptu eta eduki berriak ikasiko ditu. Hurrengo taulan Haur literaturaren funtzio nagusiak aipatuko dira, ondorengo ataletan sakonduko direnak, kalitatezko ipuinak hautatzeko aldagaiak aipatzerakoan.

Bestalde, literaturak haurraren adimena zein arima elikatzen du. Zenbat eta txikiagoa izan, gero eta gehiago disfrutatuko du kontakizunak dituen erritmo, musikaltasuna eta hotsekin. Hauek ikusmolde estetikoaz, errealitatea baino gehiago, gauzen dimentsio subjektiboak eta abstraktuak azaltzen dituzte (Lekuona, 1982).

Sentsazio anitzak dakartzate, erritmoz eginik daude eta sinboloen hizkuntzaren bitartez komunikazio sakon bat ziurtatzen dute. Gure unibertso pertsonala izendatzen, deskribatzen eta kokatzen dute batetik eta, bestetik, unibertso kolektiboa, hizkuntza jakin bateko hitzun guztiek metatu duten jakituria (Lekuona, 1982).

Aipatu duguna kontuan hartuz, Haur Literatura behar bezala definitzeko, generoaren ezaugarriak, liburuetan transmititzen den ideologia eta merkatuaren interesak aintzat hartuko dira. Horretaz gain, irakurlearen ezaugarriek berebiziko garrantzia izango dute. Izan ere, haurtzaroa bizi etapa berezia eta aldaketa handiko garaia da. Haurtzaroan izandako esperientziak geroko bizitza osoa baldintza dezakete neurri handi batean, jakina baita 0-6 urte bitartean garapen garrantzitsua izaten duela haurraren nortasunak, bere ezaguera ahalmenak eta bestelako ahalmen guztiak, hurrengo etapetan garbiago ikusiko direnak.

2.2. Haur Literaturaren funtzioak

Historian zehar Haur Literaturaren inguruko ikuspuntu desberdinak egon dira. Haur Literaturaren barnean ipuinek jaso duten arrakasta dela eta, hurrengo paragrafoetan ipuinen funtzio anitzak azalduko dira hainbat adituren lanak kontutan hartuz. Horretarako, Colomerek (2010) aurkezten duen banaketa jarraituko dugu. Literaturaren didaktikan katedradun eta idazlearen arabera, ipuinetan hiru funtzio ezberdin bereiz ditzakegu: funtzio praktikoa, didaktikoa eta estetikoa, hain zuzen.

Funtzio praktikoa dagokionez, ipuinek pentsatzen ikasteko, pertsona izaten ikasteko eta bizikidetzara irakasteko balio dute. Izan ere, besteen sentimenduak eta jarrerak ulertzen, pertsonaiekin identifikatzen, fantasian murgiltzen, sormena lantzen eta balioen esanahia ulertzen laguntzen dute. Gainera, narratzaile eta entzulearen parte-hartzea eskatzen dutelarik, era dinamiko batean imajinazioaren garapena eta ingurunearekiko jakin-mina sustatzen da.

Horren haritik, Bettelheim (1977), sormenaren garrantzia azpimarratzen du. Psikoanalistak ipuinen bidez haur bakoitzaren irudimena eta fantasia estimulatzerakoan, haurraren sormena elikatzen ari dela azaltzen du. Hau da, ipuinen bidez pentsamendu dibergentea garatzen dela defendatzen du. Haur sortzailea izateak ezustearen aurrean begirada diferenteak kudeatzeko ahalmena dakar, nolabaiteko malgutasuna eta egoerari aurre egiteko gaitasun berezia.

Idea honi jarraituz, haurrak psikologian oso ezagunak diren ezaugarri batzuk dauzka, ipuinen bitartez gaindi daitezkeenak. Haurraren egozentrismoaz eta sinkretismoaz hitz egiten ari gara. Haurrak bere irudiaren arabera hautematen du mundua, eta ez da bere ikuspegitik haratago jotzeko gai. Horregatik, bere mundua global eta nahasia balitz bezala ulertzen du eta ez ditu elementu edo objektuen zehaztasunak antzematen (Hannoun, 1997). Horren eraginez, haurrak irudikatzen duen guztia erreala dela pentsatzen du. Aipatu dugun moduan, istorioetako gertakizunek zein pertsonaiek berak sentitzen dituen emozioak ez dituela berak bakarrik sentitzen ikusarazten diote, eta literatur pertsonaiak bere arazoak gainditzen dituenean aintzakotzat bezala biziko ditu.

Bestalde, Colomerrek (2010) zehazten duen funtzio didaktikoaz hitz egiterakoan, ipuinek denboraren poderioz, neurri handi batean, irakasteko tresna bihurtu direla esan dezakegu. Izan ere, daukaten ezaugarri linguistikoaren ondorioz, narratutako istorioak oso aproposak dira gogoratzeko eta, ezaugarri ez-linguistikoaren eta hiztegiaren laguntzaren bidez, ezezaguna den hiztegia ulergarria bilakatzeko aukera ematen dute (Colomer, 2010).

Horren haritik, narrazioak eta dramatizazioak hizkuntza garatzeko eta haurren diskurtsoa hobetzeko beharrezkoak dira. Kontzientzia narratiboa hiru urterekin hasten da, eta honen oinarriak haurrak ordura arte entzundako istorioen egiturak izango dira. Haurrak hasieran irudiak ezagutu eta izendatzen ditu, istorioak eszena isolatuetan ulertzen ditu eta bakarrik gauza batzuk gogoratuko ditu. Ondoren, kontakizunak modu kronologikoan antolatu, eta gertakarien artean lotura batzuk ezarriko ditu.

Azkenik, kausalitatearen kontzeptua ulertzen hasiko da (Lasarte: 2013). Kausalitateari buruz hitz egiterakoan, zergatiaren eta haien ondorioen arteko lotura bideratzen duen jardura intelektualaz hitz egiten ari gara. Haurrak zergatiak eta ondorioak barneratzekoan aipatutako kontzeptua barneratuta dagoela esan genezake (Hannoun, 1997).

Funtzio estetikoaz hitz egiterakoan, literatura haurrari zuzendutako artelan gisa definitu dezakegu. Testuak eta irudiak jardura ludikoak eta artistikoak integratzen dituzte (Amorós, 1989) horren eraginez, haurraren atsegina estetikoaren sortzen du, haurrak kontakizun bat jasotzerakoan hotsen eta erritmoaren bitartez disfrutatuko du. Honekin batera, Amorós-en arabera (1989), beste artelan mota guztiak bezala,

literaturaren oinarria irakurleak beste pertsona batek idatzi duena irakurtzen duenean sentitzen duen plazera da.

Gaitasun sortzaileari dagokionez, ipuinen elementu garrantzitsuei esker, hau da, ilustrazioei eta testuei esker, alegia, haurrak irudi propioak sor ditzake, istorioan zehar fantasiako bidai bat eginez. Beste hitz batzuetan esanda, sormena imajinazioaren bidez beste leku batean, beste izakiekin egon ahal izatea da.

3. Ipuinak eta Psikoanalisi

Psikoanalisi Sigmund Freuden psikologia teorietan eta metodoetan oinarritzen da. Psikoterapia metodoa izanik, psikoanalisiak pazientearen adimen-prozesuko osagai inkontzienteen arteko harremanak bilatzen ditu. Istorio hauek, hortaz, garatu gabe dagoen "Ni"-ari buruz hitz egiten dute eta pultsio inkontzienteak askatzearen funtzioa betetzen dute. Hori dela eta, ipuinek nortasuna garatzeko eta gatazka psikoei erantzunak emateko balio dutela esan dezakegu. Horretarako, oztopoei aurre egiteko konponbideen adibideak jartzen dituzte, hazkuntza arazoei daukaten garrantzia edo pisurik kendu gabe (Freud: 2014).

Psikoanalisiaren arabera "Ni"-a nortasunaren egituraren nukleoa da. Freud (2014) psikoanalistak nortasunaren alde bakoitzari erreferentzia egiteko sinbolo ezberdinak definitu zituen. Teoria honen arabera, giza adimena hiru alderdiz osatuta dago. Lehenengoak, Ni-a, gizakiaren kontzientzia da, gure barne inpultsoak baretzeko balio du. Bigarrena, Zera deritza, gure inkontzientea da, alde biologikoa eta instintiboa. Hirugarrenak, Supernia da, gizakiaren eredu ideala, psikologikoki haztea, moralitatea lortzea esan nahi du (Freud: 2014).

Aurretik aipatu dugun moduan, Niaren funtzio nagusia pertsonaren errealitatean oinarrituz oreka psikologikoa bilatzea da. Niaren garapena eteten bada, gizakiak lehendabiziko gatazkak berriro bizi ditzake, garapen psikikoan oinarritutakoak direnak. Adituak honi atzerapauso edo erregresioa deritza. Aipatutako alderdiak Bettelheim-en arabera (2007) horrela irudikatzen dira ipuinetan: Hasieran agertzen den heroi inuzenteak Ni-a edo gizakiaren kontzientzia irudikatzen du. Antagonistak (*Txanogorritxo*-ren otsoa, esate baterako) eta bigarren mailako pertsonaiek (adibidez, heroiak laguntzen duten pertsonaiek) Zera edo barne-grinak islatzen dituzte. Azkenik,

heldutasuna lortzen duen heroiak, Superniari dagozkio, gizakiaren eredu ideala da (Bettelheim, 1977).

Hannouen-ek (1997) dioen moduan, haurra ez da azalpen zientifikoak ulertzeko gai, ez baitu horretarako ezagutza objektiborik. Hiru eta zazpi urte bitarteko haurrak munduaren ikuspuntu nahastuta eta desorekatua dauka (Hannoun, 1997). Sentimendu kontrajarriak sortzen dira etapa honen amaieran, haurrak ez ditu sentimenduaren erdiko estadioak ulertzen, mundua zeharo zoriontsua edo erabateko infernua balitz bezala jasaten baitu. Haurraren ikuspegitik ama, maitagarria eta ona dena haserretzerakoan bihozgabeko eta gaizto bihurtzen da eta ez du ulertzen honen eraldaketaren zergatia.

Horretarako, ipuinetako pertsonaia guztiak dimentsio bakarrekoak dira, onak edo gaiztoak, haurrak ekintza eta jarrera guztiak ulertzeko nahian. Eta aldi berean, nahasmen horri erantzun bat ematen saiatzen dira pertsonaien eraldaketen bitartez. Dualtasun honek arazo moral bat planteatzen du eta borroka gogor bat behartzen du. Hauek kontrako ezaugarriak dituzte haien arteko desberdintasunak entzule edo irakurlearentzat ulergarriak izateko (Bettelheim, 1977). Haurrak pertsonaiak oso desberdinak direla ikusterakoan nolako pertsona mota izan nahi duen erabaki beharko du. Horrela, gaiztoak beti galdu behar du, zoriona heroiarekin identifikatzen du eta amaiera zoriontsuak gatazka gainditzen laguntzen dio (Cashdan, 2000).

Bestalde, haurrak bere bizitzan bakarrik oso gutxi egin dezake, anartean, ipuinetan heroiaren jardura sinpleak ondorio izugarriak ditu. Horrela, haurrak bere aukeretan konfiantza izatea sustatzen da, era berean haurrak bere desilusioak onartuko ditu garaituta sentitu gabe. Ipuinetan agertzen den heroiak bere bidaiak bakarrik hasten du, ibilbide inizatikoak hasten da. Ibilbide hau bidaiak sinboliko bat da eta antzinako gizarteetako erritu inizatikoaren zentzuak ditu.

Honi loturik, istorioan norbaitek lehenengo egoera segurua uzten du haurraren bakardadea islatuz. Zerbaiten bila abiatzen da, abentura batean sartzen da, arrisku handiak jasaten ditu, barne barrua garbitzen du, hil egiten da sinbolikoki (Bettelheim, 1977). Hortaz, ibilbide inizatikoak egitura biribila dauka, paradisu-infernu-paradisu bidea egiten du, hasierako oreka, korapiloa edo arazoa eta amaierako egoera, oreka berria, nortasunaren goi-mailara iristea (Igerabide, 2002).

Objektu edo izaki primitiboekin egotea (landareak, animaliak eta natura) lagungarria izaten da heroiarentzat. Haurrak objektu hauetatik helduarengandik baino

hurbilago sentitzen da. Eta nortasun berri bat loratzen zaio, oharmena edo kontzientzia zabalduz, heldutasuna lortuz. Horrela, haurra heroiarekin identifikatuta sentituko da, bere bizitzaren momentu batzuetan galdua, baina istorioaren bitartez behar den momentuan laguntza jasoko duela ulertuko du. Haurrak bakarrik dagoen gizakiak ematen duen ziurtasuna behar du. Honek bakarrik egon arren ingurunearekin harreman egokiak eta zentzuzkoak izan ditzakeelako (Gutiérrez Sánchez, 2002).

Laburbilduz, literatur pertsonaiek umeez sentitzen dutenaren antzekoa esperimentatzen dute: adiskidetasuna, gorrotoa, inbidia, ... Protagonistarekin identifikatzerakoan emozio guzti hauek bizi ditzake. Alde batetik, berak bizi dituen kezkek hain garrantzitsuak ez direla ikusten du, eta bestetik, gaindi daitezkeela. Horrela bere burua hobeto ezagutuko du eta handitzen lagunduko dio. Honekin batera, haurrak bere inguruneak eskaintzen dizkion bizi esperientziei esker identitate eta generoaren garapen prozesu bat hasiko du (Bettelheim, 1977).

3.1. Ipuinen funtzio terapeutikoa

Ahozko erretorika, berezko dituen ezaugarriengatik, denboraren joanean traumak gainditzeko erabili izan dela aipatu beharrekoa da. Platon eta Aristoteles filosofoek errepublika ideal bateko iraganeko hiritarrak mitoen bitartez hezten zituzten. Aristoteles-en hitzetan, “ jakintzaren laguna, mitoen laguna da ere.” (Gil, 2004:14). Mircea Eliade-k bere aldetik (2011), Aristotelesekin bat egiten du mitoak giza jokabidearen ereduak direla eta bizitzaren zentzua eta baliozkotasuna erakusten dutela esanez.

Ipuinen erabilera terapeutikoa presente egon da hainbat kulturetan. Adibidez, Indiar medikuntza tradizionalen psikikoki nahastuta sentitzen zen pertsonari ipuin bat eskaintzen zitzaion zeukan arazoa islatzeko eta horren inguruan gogoetak egiteko (Eliade, 2011). Honen helburua, gatazkaren sorreraren zergatia bilatzea eta honen konponbidea aurkitzea zen. Istorioan agertzen zen heroiaren laguntzarekin “gaixoak” arazoa konpontzeko bidea eta larritasuna gainditzeko era egokia aurkitzen zuen. Hortaz, ipuinak funtzio sendagarria zuela esan dezakegu, pazienteak istorio bat entzuterakoan ondorio propioak ateratzen zituelako.

Istorioek hasiera erreal bat aurkeztu dute eta bertako pertsonaiek ohikoak izan arren, normalean ez daukate pazientearen kanpo bizitzarekin zerikusirik, baina pertsonaren barne-arazoekin lotuta daude. Hauek ulertezinak dirudite eta, beraz,

konponezinak. Istorioen izaera irrealaren mekanismo garrantzitsua da. Izan ere, maitagarrien ipuinak ez daude kanpo munduaren informazio funtzionala ematera bideratuta, gizabanakoen barne-prozesuetan arreta jartzera baizik (Bettelheim, 1977).

Honekin batera, haurrari gizakia izaeraz ona dela erakusteko joera dago. Garaiko kulturaren arabera, gizakiak ez dauka alde gaiztorik, ikuspuntu optimista batekin beti hobetu dezakegula azpimarratzen du. Psikoanalisiaren testuinguru honetan sortu izan zen, gizakiak bizitzaren izaera gatazkatsua onartzeko eta arazo baten aurrean garaituta ez sentitzeko.

Horrela, ipuin hauetan, beti ere zeharka, pertsonaien barne gatazkak adierazten dira. Gainera, gatazka horien konponbide desberdinak eta garapenerako giza goi-mailara ailegatzeko pausoak irudikatzen dizkigute. Maitagarrien ipuinak era erraz eta sinple batean aurkezten dira, entzulearentzat ulergarria den modu batean. Hori dela eta, ipuinak ziurtasuna, itxaropena eta amaiera zoriontsu bat egiaztatzen dio haurrari (Cashdam, 2000).

Dena den, hainbat idazleek ipuinak amaiera desberdinak izatearen beharra defendatzen dute. Colomer-en arabera (2010) istorioen amaierak desberdinak izan daitezke, itxiak, irekiak, zoriontsuak edo zorigaiztokoak. Ideia honi jarraituz, Txabi Arnalen arabera haur bakoitzari, aukera guztietan bizitzeko eta hezia izateko eskubidea bermatu behar zaio (Arnal, 2012). Aukera horiek literaturan ere eskaini behar zaizkie, haurrentzako istorioetan bizitzaren aniztasuna plazaratuz,

Haurrak modu naturalean hezi behar dira, mendebaldeko gizarteak arakastarako hezten du, itxurazko zorionean. Bizitzaren tristura eta porrotak alde batera uzten ditu, bizitzak kolore asko dituela ahazten du (Arnal, 2012: 2).

3.2. Haur Literaturaren sinbologia

Gaur egun, sinboloen hizkuntza giza ulermenaren eskuan ez dauden gauzak azaltzeko erabiltzen da, ekintzekin azalgaitzak suertatzen direnak hain zuzen. Aipatutakoa Carl Jung-ek sakontzen du hurrengo hitzak erabiliz: “definitu edo azaldu ezin ditugun kontzeptuei aipamena egiteko, etengabe sinbolikoak diren terminoak erabiltzen ditugu” (1995: 25). Jung-en arabera (1995), arketipo hauen kontzientzia daukagu, amets, mito eta erlijioei esker. Beraz, aipatu dugun moduan, nahitaezko erabilera honek gertaera psikologiko garrantzitsu batekin harreman zuzena dauka:

gizakiaren ametsetan sinboloak era inkontzientean eratzen dira. Igerarbidek (1996) iritzi honekin bat egiten du,

Sinboloak eta mundua sentitzeko sakontasuna berdina dira. Sinboloak formulatzeko eran, hor dago aldea. Helduentzat modu arrazionalizatuagoan formulatzen ditugu eta haurrentzat, berriz, izpirituaren askatasun gehiagorekin. Baina sinboloa berbera da (Igerabide in Etxaniz, 1996:14)

Istorioek gure iruditegia osatzen dute. Finean esanda, kontakizunak entzuterakoan inkontzienteki egindako loturak dira. Irudiak dira lehen gizonak zituen burubideen adierazpenak. Mitoak eta ipuin klasikoak sinbologiaren ikuspegitik sortuak dira. Hauek bi irakurketa dituzten testuak bezalakoak dira, Jose Mari Satrustegiren (2002) logikatik begiratuta. Sinbologia hitzak gauza desberdinen lotura esan nahi du, eta hortaz, ezberdintasun horietan kokatzen da ipuinen mezua (Satrustegi, 2002).

Bestalde, sinbolo hauek ezaugarri zehatz batzuk dituzte. Hasteko, testuaren atal desberdinetan hainbat alderdi barne hartzen dituzte, beste era batean esanda dimentsio desberdinak sintetizatzen dituzte: narratiboak, antropologikoak, historikoak, sozialak eta psikologikoak, hain zuzen. Bigarrenik, esanahi anitzak eta paradoxikoak dituzte, batzuetan ere haien artean aurkakoak direnak. Hau da, esandakoaren atzean mezu ezkuak gordetzen dituzte (Jung, 1995). Hirugarrenik, aurretik aipatu dugun moduan, giza arazo unibertsalei erreferentzia egiten diete.

Haurrak ziurtasuna behar du eta sinboloak dira haurren egia. Amandre ipuinetako gorputza sinboliko horrek oso egitura egonkorra du. Haurrari bere izaeraren erdigune sendo bat osatzen lagun diezaioke, egonkorra izateaz gain, egitura hori irekia eta malgua da sinboloen esanahia norberak eraikitzen duelako (Satrustegi, 2002). Bakoitzak bere interpretazio propioa izango du, bizitzaren momentuan aldatuko dena.

Atal honi amaiera emateko, amandre ipuina bizitzaren misterioei erantzun bat bilatzeko modua da, ipuinetan barne-errealitatearen eta kanpoaren arteko lotura ezartzen da. Bizitzaren oztopo eta erronkei aurre egin behar zaiela erakusten dute ipuinek. Haurra arazo larrien aurrean jartzen dute sinboloen bidez, beraien adimen-mailak barneratzeko eta asimilatze moduan. Hurrengo taulan ipuinetan agertzen diren sinbolo ohikoenak zehaztuko dira,

4. Grafikoa: Ipuinen sinboloak

<i>Bi zenbakia</i>	Giza gorputzaren erroa, gure gorputzaren osagai gehienak bi direlako: bi begi, bi belarri, bi beso, bi hanka...
<i>Hiru zenbakia</i>	Nortasunaren hazkuntzaren hiru denborak: lehena, oraina eta geroa. Adibidez hiru ahizpak agertzerakoan, ahizpak bat eta bera dira, nortasunaren alde gaitzetsiak erakusten eta emakumetze bidea da.
<i>Etxea</i>	-Etxe ederra: haurtzaroko egoera goxoa, paradisua. Leku babestua, familia dago bertan. -Etxe berri bat: nortasunaren adierazpena, gorputzaren garapena.
<i>Gatza</i>	Sinbolo biblikoa. Bizitzaren substantzia.
<i>Zuhaitza</i>	Amatasunaren babesa, abaroa eskaintzea.
<i>Emakume zaharra</i>	Edo maitagarria, Ama-lurraren edo Ama Birjinaren bizitzaren indar generatiboa biltzen ditu.
<i>Lo hartzeak</i>	Heriotza sinbolikoa, aurreko nortasuna hil egiten da nortasun berria ager dadin.
<i>Antzara taldea</i>	Sena, instintuak, grinak, beste sexuarekiko interesa adierazten du.
<i>Putzuak edo haitzuloak</i>	Umetokia, amaren sabelera itzultzea, sinbolikoki erditzea da.
<i>Euriak bustia egotea</i>	Bizitzaz blai egotea, sentimenduez gainezko egotea da. Hilekoaren jaisieraren zentzuak ere egon daitezke bustitze horretan.
<i>Sua</i>	Bizitzaren indarra, hilekoaren ondotik sexu-grinaren berotasuna, infernua izan daiteke ere (zer gertatzen zaion ulertzen saiatzea)
<i>Dantza egitea</i>	Sexu harremanetarako prest egotea.
<i>Soineko berria</i>	Berpizkundearen seinalea, nortasun berri bat jaiotzea.
<i>Urrezko jantzia eta eguzkia</i>	Errealizazioaren sinboloa. Norbait eguzki bihurtzen bada, erdigune bihurtzen da, bere izaera indar betez erakusten du.
<i>Eraztuna</i>	Sexualitatearen eta ezkontzaz uztatzearen eta osotasunaren eta denbora zirkularraren sinboloa.
<i>Ura eta ibaia</i>	Bizitzaren iturria, hasiera eta bizi-etapa desberdinak
<i>Emagina</i>	Etorkizunari buruzkoa, beti aurrera ibili beharra. Munduko lehen bizidunen errepikapen hutsa.
<i>Basoa</i>	Iluna eta misteriotsua da. Arriskuaz eta tentazioaz beterizko bide inizatikoa. Heldutasuna lortzeko bidea sinbolizatzen du.
<i>Ardoa</i>	Ardo eta haragia edatea eta jatea heldutasuna lortzea da.
<i>Orratzak</i>	Heldutasun sexuala. Plazera deskubritzea da.
<i>Otsoa</i>	Gizonezkoaren irudia, ez-ezagunaren aurrean sortzen den erakargarritasuna irudikatzen du. Instintuak eta pultsioak.
<i>Ispilua</i>	Pertsonaren dualtasuna. Haurrak nerabezaroan bihurtzearen bidea.
<i>Sagarra</i>	Jatorri Biblikoa, tentazioa, emakumearen ezaugarriak.
<i>Dragoia</i>	(Edipo konplexua irudikatzen du) Aitaren irudia, haurrak (mutila dena) printzesarengana (amarengana) ailegatzeko dragoia garaitzea.
<i>Amaordea eta aita alargun</i>	(Elektra konplexua irudikatzen du). Amaordeak neska den haurrari aitarekin egotea galarazten dio.

Iturria: (Satrustegi, 2002), (Igerabide, 2001), (Gómez Zubia, 2002) eta (Bettelheim, 1977)

3.3. *Psikodrama Sinbolikoa*

Hezkuntzaren testuinguruan afektibitate eta harremanekin erlazionatutako nahasteak gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira. Horien eraginak argiak dira ikastetxeetan. Izan ere, harremanetan jartzeko, komunikatzeko eta errealitatea hautemateko orduan gero eta zailtasun gehiago ikus ditzakegu haur eta nerabeengan. Nahiz eta eredu psikoanalitiko asko egon arazo horiei erantzunak ematen dizkietenak, psikodrama sinbolikoan zentratuko dugu gure lana metodo terapeutiko honek jasotako emaitza arrakastatsuak direla eta. Horretaz gain, eredu honen erabilera gero eta gehiago indartzen ari da irakasleek jasotzen duten prestakuntzaren bitartez. Horrela, haurren egunerokotasunean jolas bat balitz bezala, era dialektiko batean burutzen da.

Psikodrama sinbolikoa testuinguru hezitzaile eta kliniko batean garatu izan da. Honen teoria Jacob Levy Morenoren lanarekin lotuta dago (1989). Aditua ez da bakarrik termino horren sortzailea, gainera, bat-bateko dramatizazioaren teknikak berritzean eta Katarsi metodoa erabiltzerakoan psikodramaren jaiotza ahalbidetu zuen (Pérez Jiménez eta Widlöcher, 1969),

La tragedia es la imitación de una acción virtuosa que, mediante el temor y la piedad, suscita la purificación de tales pasiones. Esta purificación, que llamamos catarsis puede entenderse aplicada a la creación artística o al placer que siente el espectador. (Aristóteles in Pérez Jiménez eta Widlöcher 1969: 10)

Morenoren ustez, antzerkia aspektu estetikoaz haratago doa eta Aristotelesekin bat egiten du giza ariman eragin handia duela esanez. Berarentzat, dramatizazioak sakratua den munduraino heltzeko bidea errazten du eta norberaren zein naturaren ezagutza lortzea suposatzen du (Moreno, 1989). Bere lanetan interbentziorako hainbat alderdi jorratu arren, lan hau pedagogia sinbolikoan zentratuko da, psikodramak eskolan duen aplikazioa azaltzeko nahian.

Pedagogia sinbolikoa metodo ebolutibo bat da, helburua gizakiaren garapena globala duena. Eredu honetan metodo sinboliko bat erabiltzen da, zeinetan norbera eta taldearen arteko harremanak sustatzeko, emozioak askatasunez adierazteko, konfiantza eta originaltasuna adierazteko aukera ematen den. Metodo sinbolikoak baloreetan oinarritzen den hezkuntza baten lan sistematikoa garatzea ahalbidetzen du eta, aurretik aipatu dugun moduan, hiru dira teoria honen zutabeak: psikodrama, hizkuntza sinbolikoa eta taldea.

Hortaz, modelo analitiko hau ulertu nahian, aipatutako hiru terminoak argitzea beharrezkoa da. Psikodramari dagokionez, adierazpena bilatzen duen metodo aktibo da, horretarako, eszenen dramatizazioan oinarritzen da, antzerkiaren kalitatea eta publiko baten aurrean antzeztea bilatu gabe. Psikodramaren bitartez sinbolo eta metaforen munduan sartzeko aukera daukagu, eta horrela talde horren sinbologia ezagutzeko aukera ere izango dugu. Beraz, sinboloen hizkuntza, gizakiak era intuitibo eta emozional batean sakontasunez komunikatzeko duen ahalmena da. Azaldutako bi dimentsioak talde mailan batzen dira. Talde lanaren eraginez, afektibitatea, harreman osasungarriak eta baloreak lantzen dira.

Metodo sinbolikoaren helburua norbere bizitzaren protagonista izatea, eta identitatea zehazten laguntzea da: garapen integrala eta heldutasuna, dimentsio inkontzientea ireki eta ikaskuntza baloreetan oinarrituta bultzatuz. Metodo honek norbere garapenean eta identitatearen oinarrian laguntzen du, eta emozio desberdinen jabetzea ahalbidetzen du (Henche Zabala, 2008).

Eredu honek amets, mito, arte eta ipuinen bitartez lan egiten du. Maitagarrien ipuinen lanketa paradigmatico eta puruena dela esan genezake, sinbolo, irudi eta eszena arketipikoetan murgiltzeko aukera ematen digutelako, bai banaka zein taldeka hauek birsortzeko ere. Ipuin hauek mendebaldeko tradizioan jaio izan arren, beste kulturetakoekin antzekotasun asko dituzte. Guztiak errealitatetik kanpo eraikitzen dira, unibertso magiko, poetiko eta mistiko batean.

Psikologian, arketipo hitza arbasoen bizipenei erreferentzia egiteko erabiltzen da. Hauek inkontziente kolektiboren barnean kokatzen dira eta belaunaldiz belaunaldi giza arazo unibertsalak igortzeko erabili izan dira: heriotza, bizitzaren zentzua, desioa, egiazkotasuna, maskulinoa eta femeninoaren kontzeptuak ,... Hortaz, gatazka edo erronka horiek sinbolikoki islatzen dituzten irudiak edo metaforak dira (Jung, 1995)

Bestalde, agertzen diren estereotipoak, batez ere generoekin erlazionatutakoak aipatzekoak dira, Henche Zabalaren ustez (2008), hauei ez diegu bereziko garrantzia eman behar. Izan ere, garai historiko eta sozial zehatz bateko adierazgarriak dira eta horien azpian eduki arketipiko sakonak ezkututzen dira, ez dute ideologia transmititu nahi, baizik eta, inkontzienteari zuzenduriko mezuak dira (Henche Zabala, 2008), aurreko ataletan azaldu dugun moduan.

Henche Zabalak (2008) psikodrama saio bat proposatzen du, azal dutako sinboloen lanketa burutzeko. Saioaren lehenengo etapan, maitagarrien ipuinak kokatzen dira, hauetan imajinazioa eta fantasiaren lanketa dira nagusi; eta norbere arazo, desira eta bizitzarekin harremanetan jartzea ahalbidetzen du. Maitagarrien ipuinek hazkunde pertsonala lagundu eta indartu egiten dute eta, modu metaforiko batean, garapen ebolutiboan eragin zuzena daukate.

Psikonalasirako ipuinen taldeak aukeratutako oinarrizko kontakizunak hamabi dira, hauek orden bat jarraitzen dute garapen prozesuaren arabera. Jung-en arabera, banantze prozesuan oinarritzen dira, horregatik metaforikoki gizakiaren hazkuntza psikologikoari erreferentzia egiten diote (Jung: 1995). Hurrengo koadroan, aipatutako hamabi ipuinek lantzen dituzten gai nagusiak argitzen dira,

5. Grafikoa: Psikoanalasirako hamabi ipuinak

1. <i>Zazpi antxumeak</i>	Atxikimenduaren irudia, amarik gabe protagonistak ezin dio arazo bati ebazpen bat eman.
2. <i>Txano gorritxo</i>	Norberaren mugaz ohartzeko beharra, atxikimenduaren irudia uztea.
3. <i>Hiru txerrikumeak</i>	Nortasunaren garapena, identitatearen sorrera ikusten da.
4. <i>Txokolatzeko etxea</i>	Independentzia eta autonomia, haurtzaroaren paradisua edo erosotasuna uztea irudikatzen du.
5. <i>Erpurutxo</i>	Kontzientziaren agerpena, egoerak aztertze gaitasuna agertzen da.
6. <i>Erleen erregina</i>	Haurtzaroaren bukaera, bizitzaren goxotasuna aurkitzeko bidea irudikatzen du.
7. <i>Ahatetxo itsusia</i>	Bakartasuna, bizitzaren alde gogorre aurre egiteko beharra.
8. <i>Pinotxo</i>	Moralitatearen kontzientziari buruz hitz egiten du.
9. <i>Mari Errauskin</i>	Heriotza, heldutasuna lortzeko bidea jorratzen du.
10. <i>Loti Ederra</i>	Nerabegarotik gaztarora igarotzeko bidea.
11. <i>Edurnezuri</i>	Bizitzaren alde negatiboa ulertzea.
12. <i>Ederra eta piztia</i>	Benetako autonomia lortzea, gizakiaren alde negatibo eta positiboak ulertzea eta barneratzea.

Iturria: (Henche Zabala, 2008)

Ikusten dugun moduan, haurrak ipuin hauek lantzerakoan bizitzaren oinarrizko esperientziak esperimentatuko ditu eta heroiaren bitartez lortutako garaipenak bere historian, bere barnean gordeko ditu. Beraz, hasierako ipuinetik azkenengora gero eta

heldutasun maila altuagoa lortuko du, horrela, lehenengo faseak lehen urteetako atxikimendua biltzen du, benetako autonomia lortu arte (Jung: 1995).

Horren haritik, aipatutako istorioak aukeratu, egokitu eta interpretatu behar dira, aipatutako antolaketaren arabera. Henche Zabala (2008), metodo honen aplikazioa bost eta hamabi urte bitarteko haurrentzat egokia izango litzateke eta saioak hiru faseetan antolatzen dira; murgilketa, transformazioa eta sorrera. Hauek garatzeko, hainbat teknika eta baliabideak kontutan hartu beharrekoak dira; hala nola, zuzendaria, protagonista, bigarren mailako parte hartzaileak, eszenatokia eta ikuslea (Henche Zabala: 2008).

Aurretik aipatu dugun moduan, taldeak garrantzia handia hartzen du. Behar den moduan funtzionatzeko lehenengo saio sinbolikoa martxan jarri baino lehen, parte hartzaile guztiek saioen programazioari buruzko informazioa jasoko dute. Aldi berean, jarduerak garatzeko espazioak, materialak eta beharrezko baliabideak prestatuko dira. Ondoren, giro parte hartzailea eta eroso sortuko da, horretarako parte hartzaile desberdinak jolas sinbolikoen bitartez aurkeztea lagungarria izan daiteke.

Murgilketa fasean ipuina klima lasai, motibagarri eta arretatsu batean kokatzen da. Fase honetan, bideratzaileak taldeari saioa aurkeztu eta gero dramatizazioarako eta egingo diren teknikak garatzeko magikoa eta alegiazkoa den espazio bat sortuko du. Gelaren, antolaketari dagokionez, talde osoa zirkuluan kokatuko da, erdian dramatizazioak egiteko espazio zabal bat utziz.

Ipuinaren bertsio egokia aukeratu eta gero, irakasleak edo bideratzaileak ipuina irakurriko du, hots aldaketekin baina antzeztu gabe. Bertsio egoki bat izateko ipuinak honako irizpideak bete beharko ditu: denboraz kanpoko izatea, hizkera metaforikoa erabiltzea, pertsonaia arketipikoak agertzea, emozio sakonak transmititzea, sekuentziak kohesionaturik edukitzea eta hizkera literarioa erabiltzea. Fase honetan ez dago ipuin transformaziorik, haurrak ipuinean agertzen diren elementuak bere beldurrak, beharrak, bizipenak eta sentimenduak adierazteko tresna gisa erabiliko ditu.

Ipuina kontatu era gero, haur bakoitzak gustukoena izan duen eszena aukeratuko eta talde handian azalduko du. Gero, guztien artean eszena bat aukeratuko da ondoren antzezteko. Eszena azaltzerakoan bi psikodrama maila ikus ditzakegu; eszena manifestatzailea edo autorearen deskribapen literala eta eszena ezkutua edo autoreak egindakoari ematen diogun esanahia (Pérez Jiménez eta Widlöcher 1969). Fase

honetan, bigarren maila emango da, hau da, aukeratutako eszenak inkontzienteki norberaren barne-erronka edo desioarekin lotura izango du. Fase honi ipuinen transformazioa deritzo eta haurren gaitasun sortzailea garatzea izango da honen helburu nagusia.

Transformazioa eta gero, proposatutako eszenen artean bat aukeratu da eta horren hizkuntz sinbolikoa landuko dute hainbat jarduera dramatikoaren bitartez. Era honetan, ikasle bakoitzak protagonismoa bereganatzen du, taldeko arauak ezagutu eta elkarrekin jolastuko dute. Eszena antzeztekoan, eszena proposatu duen haurra izango da atal honetako zuzendaria, hau da, materialak eta pertsonaiak aukeratu ditu. Horrela, haur guztiek parte hartuko dute, bakoitzaren nortasuna eta erritmoa errespetatuz, bakoitzak paper bat dramatizatzerakoan, nahi duen moduan egingo du, nahi dituen sentimenduak eta nahiak irudikatuko ditu.

Azkenengo fasean, sorrera fasean, dramatizaziorako eszena, pertsonaia eta istorioak sortuko dira. Antzeztuko den istorioa asmatzeko, bakoitzak bi pertsonaia hautatu ditzake edo, parte hartzaile bakoitzak ipuinaren zati bat asmatu eta idatzi dezake. Ipuina sortu eta gero pertsonaia ezberdinen paperak entseatuko dira.

Saioa bukatzerakoan ariketa bat egingo da haurrak erlaxazio egoera horretatik ateratzeko. Programazioan amaiera hasieratik azalduko da eta bukaeran egindakoaren ebaluazioa eta sintesia egingo da. Talde handian egindakoari buruzko hausnartzean norberak sentimenduak eta ikuspuntuak adieraztea bilatuko da.

4. Eskolako liburutegia

Eskolako Curriculumean islatuta agertzen den moduan, hezkuntzak garrantzi handia ematen dio informazio iturri desberdinak erabiltzeari, ikasle bakoitzak irakurketa esanguratsua egin dezan eta bere irizpide propioa gara dezan. Honetaz gain, eskolako aniztasunari erantzutea eta haur bakoitzaren gaitasun eta erritmo desberdinak errespetatzea irakaslearen zeregina da. Horretarako, material egokiak eskuratu behar ditu eta baliabide horiek eskolan ongi antolatuta egon beharko dira eskolako liburutegian, hain zuzen.

Aipatutako helburuak betetzeko, ikastetxeko baliabideak aurkitu eta behatu behar ditugu. Liburutegia ez da erabilgarria izango liburu berriak eta hondatuta daudenak batera baldin badaude, hau da, liburuen hautaketa eta garbiketa egin beharko da aldiro

(Jordi, 1995). Materialen osaketak orekatua izan behar du, hutsunerik egon ez dadin. Aurretik aipatu dugun moduan aukeraketa horretan aurretik liburuen alderdi guztiak zaindu beharko genituzke, ez testuak eta istorioak bakarrik, baita argitalpenaren gainerako ezaugarriak ere (Aguiriano, 2006). Beharrezkoa da egiten dugun eskaintza erakargarria izatea, hurrei material aberatsa eskaintzen badiegu irakurketa atsegingarria izango delako.

Horren haritik, irakurleek liburu mota ezberdinak eskura izatea gomendagarria izango litzateke. Hartaz, irakurle ezberdinak aintzat hartzen dituzten liburuak, literatur esperientzia ezberdinak eskaintzen dituzten testuak (fantasiazkoak, errealak, historikoak, umorea lantzekoak, albumak, poesia ,...), eta helburu desberdinak dauzkaten testuak, hala nola jolastea, informatzea, egoerak gainditzea, abisatzea, ... Honekin batera, narrazioaren ostean ondo legoke irakurketarekin erlazionatutako jarduerak egitea, istorioaren hausnarketak, aldaeren arteko konparazioak, jolas sinbolikoa, tertulia dialogikoak ...

Espazioari dagokionez, erabiltzaileen ezaugarriak kontutan hartzea eta haien beharrak betetzea garrantzitsua izango da. Beraz, ikasleen adin-taldea izango da hau antolatzeko irizpide nagusia eta honekin batera ikasleek dituzten ezaugarriak. Ondoren, liburutegian egingo diren jarduera desberdinak kontuan hartuko ditugu: bakarka edo taldeko irakurketa, ipuin kontaketa, ikus-entzunezkoekin lantzea, dramatizazioa ,... Ikasle adin bakoitzarentzat altzairu desberdinak beharko dira eta aldi berean, giro baldintza ezberdinak. Beraz, espazioa antolatuko da, beste batzuen artean, gogoeta hauek aintzat hartuta (Jordi, 1995).

Bestalde, liburutegiaren erabilpen egokia ziurtatzeko, bertan hainbat seinale egotea gomendagarria izango litzateke. Lau seinale mota nagusiak daude; kanpokoak, barnekoak, tokia erabiltzen jakitekoak eta apalategiko gai ezberdinen seinaleak. Kanpo seinaleak ikastetxean kokatuta daude eta liburutegira sartzeko bidea erakusteko balio dute. Barnekoei dagokionez, liburutegiaren barne antolakuntza argitzeko erabilgarriak dira. Tokiak erabiltzen jakitekoak, espazio bakoitzean egingo diren jardueraz informatzeko erabiliko dira, hauek testuz eta marrazkiz adierazita egotea gomendagarria da irakurtzen ez dakiten haurrak ulertzeko modukoak. Azkenik, apalategietan gaien araberako errotuluak egongo dira (Carreras, Martínez eta Rovira, 1997).

Liburutegiaren zerbitzu posible bat bertako mailegua izango da, honen bidez erabiltzaile ezberdinei liburuak eramateko aukera emango zaie. Ohikoenak, ikasleak,

irakasleak, gurasoak eta bertako beste langileak izango dira. Mailegua eskuz edo ordenagailuaren bidez egin daiteke. Horrela, bi fitxategi alderatuko dira, izenburuena eta irakurlearena eta hauek abizenaren eta itzulpen dataren arabera ordenatuko dira (Jordi, 1995).

Liburutegian jarduera anitzak gauzatuko direnez, funtzionamenduaren erantzukizuna pertsona bakar bati ez uztea garrantzitsua da. Hobesten da irakasle talde osoaren eskuetan uztea. Aipatu dugun moduan, irakurtzera bultzatzeko jarduerak eta baliabideak dinamizatzea izango dira talde honen zereginak, ondorengo atalean sakonduko ditugunak.

Horretarako, klaustroak liburutegiko proiektua onartzea eta irakasleek bere egitea beharrezkoa izango da, erabilpenak egokitzapen pedagogiko garrantzitsuak eskatzen dituelako. Horren ondorioz, proposamen hau Eskola Kontseiluan aurkeztea eta defendatzea komenigarria da. Horrela, proiektuan hezkuntza komunitate osoa inplikatu da.

4.1. Gelako liburutegia

Hurrengo atalean gure gelan irakurtzera gonbidatzen duen espazio egoki bat sortzeko hainbat alderdi aipatuko ditugu. Atal honetan gure helburu nagusia ageri den liburutegiaren erabilera aktiboa eta dinamikoa izatea da. Horretarako gure planteamendu pedagogikoa ikaskuntza aktiboa eta autonomoan oinarrituko dugu ikasleek baliabide anitzak eskura dauzkatela ziurtatuz.

Irakurketak, jarduera guztiek bezala, konstantzia behar du eguneroko ohitura bihurtu ahal izateko. Hasieran irakurketari eskaintzen zaion tartea murrizta izango da, eta denborarekin zabalduz joango da. Horregatik gelan, literaturari zuzenduriko txoko bat eraikitzea aproposa izango litzateke haurrek liburuekin lehenengo harremanak eraikitzeke aukera izateko.

Horren haritik, liburutegia haurrak heltzen diren lekuan kokatuta egon behar da, adibidez apal edo armairu baxuetan. Haur Hezkuntzan gomendagarriak diren neurriak hurrengo hauek dira: 3-5 urteko haurrentzat: mahaiaren altuera 45 cm, apalategi edo armairuaren altuera: 94-120 cm, ikus-eremu: 82-105cm. 5-7 urteko haurrentzat mailaren altuera 55 cm-tik gora, apalategi edo armairuaren altuera: 106-137 cm, ikus-eremu: 94-118cm (Jordi, 1995).

Horrela, inolako mugarik gabe hauek askatasunez eta era autonomoan liburuekin jolasteko eta esperimentatzeko aukera izango dute. Txokoa erosotasunagatik nagusitu beharko da, horregatik bertako lasaitasunari garrantzi handia emango zaio. Posiblea bada, alfonbra eta kuxenekin espazioa mugatzea gomendagarria izango litzateke. Hortaz, ahal den neurrian, zarata asko sortzen den txokotik urrun kokatu beharko da, haurrak behar edo nahi duenean isolatzeko aukera izateko edo taldeka lasaitasunez biltzeko (Jordi, 1995).

Bestalde, Concepcion Chaos-en ustez (2006), haurrari irakurtzerakoan behar duen askatasuna eskaini behar zaio. Lanaren aukeraketa libre honek helburu zehatz batzuei erantzungo die, konkretuki haurren lan erritmo ezberdinei egokitzea eta motibazio ezberdinei erantzutea. Haurrak ekiten dio jarduerari, ikaslearen orientabide, proposamen edo aginduen menpe egon gabe, haurrak erabakitzen baitu zer, nor eta zerekin egingo duen (Chaos, 2006).

Dena den, jarduera testuinguruaren arabera mugatuta egongo da. Beste hitzetan esanda, jarduera horretan ingurunea antolatzea eta ikaskuntza esanguratsua burutzeko baliabide egokiak aukeratzea izango da irakaslearen zeregina. Aukeraketa horretarako, hurrengo atalean jarraitu beharreko aldagaiak zehaztuko dira. Horretaz gain, ikaskuntza egoera librean burutzen ari diren bitartean tutoreak behaketa zuzena eta sistematikoa burutu behar du, taldearen eta banakoaren aurrerapenak ebaluatzeko teknika gisa. Hala ere, gelan irakurketa lantzea eta irakurzaletasuna bultzatzeko jarduera gidatuak egitea gomendagarria da.

Laburbilduz, gelako liburutegia kokatzen den txokoak lasaia eta atsegina izan behar du, erakargarria eta heltzeko erraza, haurren jakin-mina pizteko modukoa eta askatasunez erabiltzeko lekua. Hurrei irakurtzera behartu gabe, eguneroko jarduera bat bihurtzea izango da gure helburu nagusia. Horretarako liburu eta beste baliabide batzuen eskaintza proposa eta aberatsa izan behar da, bertan jarduera (askeak zein gidatuak) motibagarriak eta esanguratsuak garatzeko nahian.

5. Helburuak

Aurreko ataletan Haur Literaturaren barnean ipuinek izan ditzaketen funtzioak eta erabilera terapeutikoan sakondu da. Hortaz, landutako teoria praktikan aplikatzeko nahian, gure lana kalitatezko ehun liburu sendagarrien bilduma bat sortzera bideratuta

egongo da. Hau da, munduari buruzko gogoetak eta norberaren identitatearen garapena bultzatzen duten liburuak barnebiltzen dituen bilduma.

Honekin batera, bertan agertzen diren gaiak eta hauek duten tratamendua inflexio gunetzat hartuko da. Gure helburua, beraz, naturaltasunez, literaturaren bitartez, haurren egunerokotasunean sortzen diren erronkak lantzea da. Denboraren poderioz, haurrak gatazka baten aurrean aurkitzerakoan konponbide ezberdinak bilatzeko gai izateko. Horretarako, haurrei material esanguratsuak eskaintzen saiatuko gara, irakurketa jarduera esanguratsua bihur dadila.

Beraz, aipatutakoa aintzat hartuz, lanaren helburuak honakoak izango dira:

1. Hainbat adituen lanak oinarri hartuta, Haur Literaturaren jatorri eta funtzioei erreferentzia eginez, arloaren kontzeptualizazioa sortzea. Ondoren, honek haurren garapean duen garrantzia azpimarratzeko.
2. Psikoanaliaren korrontean murgiltzea, ipuinek izan dezaketen funtzioen artean, funtzio sendagarria justifikatzeko.
3. Marko teorikoan landutakoa praktikara eramatea. Horretarako, azaldutakoa aplikatuz, behaketa tresna bat sortzea kalitatezko ipuin sendagarrien bilduma sortzeko.
4. Erreminta eskuan hainbat liburu behatu eta aukeratutako itemak betetzen dituzten liburuekin 100 liburuetako proposamena luzatzea.

6. Metodoa

Hurrengo lerroetan hasieran azaldutako hautaketa burutzeko eta zehaztutako helburuak betetzeko erabili ditugun metodo eta prozesuak aipatuko ditugu, hau da, ehun liburu sendagarrien bilduman sortzeko kontuan izandako aldagaiak zehaztuko ditugu, ondoren, behaketa taula batean argituko direnak. Hauturako *item* hauek hainbat adituen lanetan oinarritura daude. Colomer (2010), Lluch (2010), eta Teresa Duran-enak (2009) azpimarratzekoak dira.

Hasteko, irizpide garrantzitsuenetariko bat irakurlearen ezaugarriak kontutan hartzea izango da. Aurreko ataletan adierazi dugun moduan, haurtzaroa bizitzako etapa berezitat hartzen da adin tarte horretan ohikoak diren aldaketa eta ezaugarriak direla eta. Beraz, ipuin egoki bat hautatzeko haurren adina zein garapen maila kontutan

hartuko dugu. Kasu honetan, gure liburutegirako aukeratutako liburu guztiak 3-6 urte bitarteko haurrentzat egokiak izango dira.

Horren haritik, liburuetan jarritako adinaren inguruko gomendioak kontuan eduki beharrekoak dira. Hala ere, gomendio horiek ez dira beti egokiak izaten haur bakoitzak garapen erritmo desberdina, gustu ezberdinak, eta irakurketarekin erlazionatutako esperientzia ezberdinak izan ditzakeelako. Beraz, irizpide propioak ere aintzat hartuko dira hautaketa honetarako.

Bestalde, testuaren zein para-testuaren elementuei eta xehetasunei garrantzia emango diegu. irakurlearen arreta deitzeko ezinbestekoak direlako. Para-testuei buruz hitz, aurre eta atzeko azalaz, babesorriaz, tipografiaz, formatuaz, ... bezalako elementuei buruz hitz egiten ari gara. Formatuak istorioaren eraketan laguntzen du, testu eta ilustrazioen arteko harmonia erakusteko aukera emanez. (Taberner, 2005)

Honekin batera, estrukturari dagokionez ondo antolatuta eta kohesionatuta egoteari garrantzia emango zaio, istorioaren antolakuntza estrukturala kausa-ondorioan oinarritu behar da. Horregatik, funtzio kardinalak edo gertakizunen segida garrantzitsua izaten da, kausa batetik ondorio batera eramaten gaituztenak. Gertakizunen arteko kohesio egokia lortzeko erritmo arina izan behar du narrazioak, elkarrizketaz eta elipsiaz baliatuta, beste elementu batzuen artean (Duran: 2009).

Beraz, narrazioa nola eraikitzen den kontutan hartu beharko da, hau da, narrazioaren sekuentzia narratiboa. Colomerren arabera (2010), sarrera garrantzitsua da, irakurlea erakartzeko balio baitu, irakurlea harrapatu, irakurtzera motibatu behar dio. Hasierako gertaerak irakurleari behar besteko informazioa eskaini behar dio istorioa jarraitzeko beharrezkoa dena baina aldi berean jakin-mina pizten duena. Hasierako deskribapenak luzeegiak izaterakoan irakurleak ezin izango du xehetasun guztiak gorde eta, hortaz, interesa galduko du. Hasierak, istorioaren testuingurua aurkeztu behar du eta, aldi berean, espazioa eta denbora finkatuko behar da, pertsonaiak harremanetan jarriko dira, narratzailea aurkeztu eta informazioa aurreratuko da.

Ondoren, egoera gatazkatsua bat, era logiko batean azalduko da. Honekin batera, espazioa, denbora eta aurkeztutako pertsonaiak kontuan eduki izan beharko ditugu. Izan ere, hauek istorioaren erritmo eta intentsitatea finkatzen dute. Beraz, hau girotzeko ezinbestekoak suertatzen dira, eta irakurlearen sententzioak areagotuko dituzte.

Horretarako, istorioa zein bertako elementuak sinesgarriak izan beharko dira, haurrak identifikatuta sentitzeko modukoak.

Amaieran gatazkak ebatziko dira, liburuaren generoarekin bat eginez (ezustekoa, aurreikusitakoa, era itxian ala irekian planteatzea ,...) Amaieran arazoei irtenbidea eman behar zaie eta irakurleari emozio desberdinak sorrarazi behar dizkio. Tentsio narratibo guztia arazoa desagertzera bideratuta egon behar da, amaiera itxia eta zorion sentsazioarekin uzten diguna.

Bestetik, Colomerren arabera (2010), batez ere transmititzen diren istorioak baloratu behar dira, horregatik, bereziki hautatutako ipuinetan lantzen diren baloreak haurren garapenerako egokiak izatea bilatuko dugu.

Horren haritik, liburuetan transmititutako baloreak eta ideologia kontuan hartzea gomendagarria izango litzateke. Edozein narraziok ikuspuntu ideologiko zehatz bat transmititzen du. Hori dela eta, transmisioaren eran jarriko dugu arreta osoa. Izan ere, haurrak jasotzen duenak etorkizunean gizarte portaeratan eta bizitzaren inguruan garatuko duen ikuspuntuan eragina izango du. Horrela, aukeratzen ditugun liburuetan autoreak ez du lezio edo irakaspen esplizitu bat inposatu behar, baizik eta, zeharka, gatazka baten aurrean konponbide ezberdinak bilatzeko gaitasuna landu behar du.

Gaiaren trataerari dagokionez, hurrekin lantzeko zailak diren gaien aurrean (adibidez heriotza, gurasoen banaketa, abandonua ...) ikuspuntu ezberdinak erakutsi behar dituzte. Haurrak sentsibilizatzea, gaiaren inguruan hausnartzea eta gauzak zalantzan jartzea helburuak izanik. Horrela, era natural batean, haurrak errealitatea eta alegiazko kontakizunen artean loturak ezarri eta gaiari buruzko ondorio propioak aterako ditu.

Horrekin batera, Bettelheim-en (1977) arabera, umeek fantasiaren premia daukate eguneroko errealitateari aurre egiteko. Hala ere, hurrek alde aurretik garbi izan behar dute entzungo dutena fikzioan kokatuta dagoela. Horrezkero, haurrak istorio tragikoak, harrigarriak, ustekabeak entzun ditzake larritasuna sentitu gabe (Bettelheim, 1977). Hortaz, batez ere gai transgresoreak lantzerakoan, idazleak irakurlearengandik distantzia hartzeko hainbat elementu erabili beharko ditu. Hainbat baliabideen artean animismoaren erabilpena nagusia da. Alde batetik, azaldu dugun moduan hartzaileari behar duen distantzia emateko edo, beste aldetik, mundu fantastiko batean murgiltzeko.

Haur Literaturan konkretuki, ilustrazioak garrantzi handikoak dira. Izan ere, haur batzuk oraindik ez dakite irakurtzen eta liburuko irudiak laguntza handikoak izaten dira istorioaren ulermenerako. Ilustrazioek, beraz, informazio ugari ematen digute eta irakurlea erakartzeko eta arte hizkuntzan murgiltzeko balio dute (Lluch 2010).

Horrela, hitzak zein irudien bitartez giro eta atmosfera bereziak sortzea bilatuko dugu. Beste era batera esanda, hizkuntzaren sinbolismoa nabaria izango da, eraginkorra eta sentimenduak eta emozioak transmititu behar ditu. Irudiak, testuak ulertzeko erabilgarriak eta aldi berean fantasia eta imajinazioa lantzeko aproposak izango dira, hau da, arte hizkuntzan murgiltzea ahalbidetuko dute. Baita testua eta irudiaren arteko loturen, agertzen diren elementuen, erabilitako tekniken (Collagea, argazkiak, oleozkoak ,...) eta betetzen dituzten funtzioen (ironia ematea, misterioa, deskribatzea, ...) egokitasun maila kontutan hartzekoa da ere.

Azkenik, liburuek dituzten berezitasunak kontuan izanda, norberak sentitu, esperimentatu eta bere biografiarekin egindako loturaren azterketa egingo da. Beste hitz batzuetan esanda, aukeratutako liburuak emozioen marra, norberaren bizi esperientzien mapa eta zentzumenen biografia osatzen lagunduko du. Hau da, liburu bat hautatzeko eta gomendagarria dela erabakitzeke, honek erakarri behar gaitu, bizi izandakoarekin loturak eta konexioak egiteko aproposa izan behar da, gure barneraino heldu behar du.

Aipatutakoa kontuan izanda, ipuinen aukeraketa ahalik eta egokiena izateko, zehaztutako alderdiak ondorengo behaketa taulan jaso dira:

7. Grafikoa: Ipuin sendagarriak hautatzeko behaketa taula (Colomer, 2010) eta (Lluch 210)

1. Irakurlea		1.1. 3-6 urte bitarteko haurrentzat.
2. Testua	2.1. Sekuentzia narratiboa	2.1.1. Sekuentzia narratiboak koherentzia dauka. 2.1.2. Sarrera egokia da, istorioa aurkezten eta informazioa aurreratzen da. 2.1.3. Egoera gatazkatsu bat planteatzen du irakurlearen interesa pizten duena. 2.1.4. Amaieran era egokian gatazkak ebazten dira.
	2.3. Estructura	2.3.1. Estructura ondo antolatuta eta kohesionatuta dago, estructura kausa-ondorioan oinarrituta dago. 2.3.2. Denbora pertsonaien jarrera eta ekintzetan islatzen da. 2.3.3. Pertsonaiak bereziak, errealak eta sinesgarriak dira. Identifikatuta sentitzeko modukoak. 2.3.4. Espazioa istorioa girotzeko baliogarria da. Sentsazioak eta egoerak areagotzen laguntzen du
	2.4. Gaiak eta tratamendua	2.4.1. Modu naturalean aurkezten da eta sinesgarria da. 2.4.2. Hausnarketa bultzatzen du. Haurra mundua ulertzeko baliogarria da. 2.4.3. Fantasiaren premia asetzen du. 2.4.4. Irakurlea hunkitzen eta entretenitzen du. 2.4.5. Gai urratzaileak lantzerakoan irakurlearengandik distantzia hartzeko idazleak hainbat elementu erabiltzen ditu: protagonista animalia izatea, umorea, elementu fantastikoak. 2.4.6. Gatazkak islatzen eta hauek konpontzeko ikuspuntu anitzak erakusten ditu
	2.5. Hizkuntza	2.5.1. Irakurlearen adinerako egokia da. 2.5.2. Irakurlearentzat gramatika eta lexiko egokia erabiltzen du. 2.5.3. Eraginkorra eta ulerkorra da, komunikazioa ziurtatzen du. 2.5.4. Testuaren generoarekin bat egiten du. 2.5.5. Hizkera irakurlearen iruditegia osatzen du, sinbolismoa nabaria da. 2.5.6. Hizkera espezifiko erabiltzen du (umorea, ironia, dramatizazioa, suspensea, sineskortasuna)
3. Para-testuak		3.1. Formatua istorioa eraikitzen laguntzen du.
4. Ilustrazioak		4.1. Garai eta leku bateko oinarria islatzen dute. Irudiek atmosfera desberdinak sortzen dituzte. 4.2. Ezaugarri bereziak eta errealak dituzten pertsonaiak sortzen dituzte. 4.3. Testu eta irudiaren arteko sinergia nabaria da. 4.4. Testua edertu eta aipatzen du. Imajinazioa sustatzeko erabilgarria da.
5. Funtzioak		5.1. Erlazionatutako jarduerak burutzeko aproposa, hausnarketak, aldaeren arteko konparazioak egiten, jolas sinbolikoa landu, afektibitatea lantzen du.
6. Igorritako emozioak		6.1. Erakargarria da. 6.2. Bizi esperientziaren eta irakurritakoaren arteko harremanak ezartzea ahalbidetzen du. 6.3. Sentimenduak eta emozio sakonak eragiten ditu.

7. Emaitzak

Ondorengo taulan, aipatutako ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira. Kalitatezko ehun liburu sendagarri honen aukeraketa burutzeko aurretik aipatutako aldagaiak jarraitu ditugu. Bilduma honetan haurren egunerokotasunean sortzen diren gatazkak islatzen dituzten liburuak aurkituko ditugu. Sei gaietan oinarrituta egongo dira: nortasunaren garapena, sexualitatea, haurtzaroaren menpekotasuna, auto-estimua, bakardadea eta heriotza.

Bestalde, haurren adinaren arabera antolatuko dira, haurren ezaugarri eta beharrei ahalik eta hoberen erantzuteko asmoz. Liburu guztiak Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako bideratuta egongo dira, hiru eta sei urte bitarteko haurrei, hain zuzen ere. Hizkuntzari dagokionez, gehienak euskarazkoak izatea saiatu gara, hala ere, beste hizkuntzetan daudenak ere bildu ditugu eskoletako hizkuntza aniztasunaren presentziari erantzuteko asmoz. Gaien arabera sailkapenaren arrazoia, haurrak egunerokotasunean dituzten erronkak islatzea eta lantzea da.

Hala ere, burututako ikerketa mugatua izan dela esan beharrekoa da, alde batetik, hautatu beharreko ipuinen kopurua aurretik finkatuta egon delako, hortaz, kalitatezkoak diren ipuin asko aurkitu arren, aproposenak edo helburuei ahalik eta hoberen egokitzen direnak aukeratu izan ditugu. Bestetik, merkatuak jartzen dituzten mugengatik. Izan ere, argitaratzen diren liburuek saltzera bideratuta daude. Hori dela eta, argitaratzen diren euskarazko liburuen kopurua murriztua da, beste hizkuntza indartsu batzuekin alderatuta, gaztelera eta ingelesa, hain zuzen.

Esan behar da aukeratu diren ehun liburu aukeratu ahal izateko, 250 liburu irakurri eta aztertu direla. Azkenik, aukeraturiko itemak betetzen dituzten 100 liburu sendagarriak hautatu dira liburutegi proposamena egiteko.

8.Grafikoa: Kalitatezko ipuin sendagarrien bilduma

GAIA	ADINA	IZENBURUA	
NORTASUNAREN GARAPENA	3 urtetik gora	<i>Aharrausi Printzesa (2009)</i>	
		<i>Untxitxo txuria (2000)</i>	
		<i>Ahatetxo itsusia (1997)</i>	
		<i>Pinocho (1995)</i>	
		<i>Mari Xor (1986)</i>	
		<i>Txanogorritxo (2009)</i>	
		<i>The three Billy goats (2011)</i>	
		<i>Munduko etxerik handiena (2008)</i>	
		<i>Tanta baten istorioa (2011)</i>	
		<i>Sirenatxoa (1999)</i>	
		<i>Kokoriko (2009)</i>	
		<i>Hiru txerrikumeak(2011)</i>	
		<i>Goldilocks and the three bears (2011)</i>	
	5 urtetik gora	<i>Arrosa eta leuna (2013)</i>	
		<i>Basoko loti ederra (2013)</i>	
		<i>Baba magikoak (2002)</i>	
		<i>Piztiak bizi diren lekuak (2000)</i>	
		<i>Basoan barrena (2000)</i>	
		<i>Hegaztiak (2012)</i>	
SEXUALITATEA	3 urtetik	<i>Piel de asno (1999)</i>	
		<i>Kili-kiliak (2012)</i>	
	5 urtetik gora	<i>Ederra eta piztia (2007)</i>	
		<i>Edurnezuri (2011)</i>	
		<i>Kili kontuak (2010)</i>	
		<i>Bihotz-bihotzetik (2013)</i>	
	HAURTZAROAREN MENPEKOTASUNA	3 urterik gora	<i>Amatxo, zergatik? (2005)</i>
			<i>¡Julietta, estatequieta! (2008)</i>
			<i>Madrechillona (2013)</i>
			<i>Otsoa eta zazpi antxumeak (1996)</i>
			<i>Oilo gorria eta txitatxoak (2011)</i>
<i>Kili txikia (2013)</i>			
<i>Maddaleren usaina (2013)</i>			
<i>¿Mequieres o no mequieres? (2004)</i>			
<i>Negar ez egiteko botika (2006)</i>			
<i>Handia naiz amatxo (2004)</i>			
<i>Bi ahuntz (2005)</i>			
<i>Hollyren bota gorriak (2008)</i>			
5 urtetik gora			<i>Amak plastakoa eman dit (2004)</i>
		<i>Elextarordinarioviaje de Prudence (2011)</i>	
		<i>Ostiraleko opila (1998)</i>	
		<i>Adio, Jonas (2007)</i>	
		<i>Maripuzker (2002)</i>	
		<i>Bizi! (2013)</i>	
		<i>Zazpi gau (2014)</i>	
<i>Oinutzik jauregian (2007)</i>			

AUTOESTIMUA	3 urtetik gora	<i>Elmer (2012)</i>	
		<i>Odilon Hegalari (2008)</i>	
		<i>Maite nauzu oraindik? (2012)</i>	
		<i>The Little red hen (2012)</i>	
		<i>Frederick (2011)</i>	
		<i>Mum (2013)</i>	
		<i>Jostuntxo ausarta (2010)</i>	
		<i>Los tres deseos (2007)</i>	
		<i>Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan (2007)</i>	
		<i>Amets gaizto nire armairuan (2003)</i>	
		<i>Hamar txerrikume (2003)</i>	
		<i>Urrezko arrautzak erruten zituen oiloak (2007)</i>	
		5 urtetik gora	<i>Erregearen traje berria (2001)</i>
	<i>Nikoleta eta gaua (2008)</i>		
	<i>Hamelingo txirularia(2002)</i>		
	<i>Tximeleta belarriak (2009)</i>		
	<i>Bizarbeltz kapitaina (2014)</i>		
	<i>Hiru bidelapurak (2001)</i>		
	<i>Igeritz (2007)</i>		
	<i>Bremengo musikariak (2010)</i>		
<i>Barbantxo (1998)</i>			
<i>Txomin ipurdi (2001)</i>			
<i>Katu botaduna (1996)</i>			
<i>Amonatxoak (2010)</i>			
<i>Tanga y el gran leopardo (2009)</i>			
<i>Neu naiz indartsuena (2006)</i>			
<i>Ipuinen haria (2008)</i>			
BAKARDADEA	3 urtetik gora		<i>Perdido y encontrado (2005)</i>
			<i>Mateo (1999)</i>
		<i>Kangumea (2006)</i>	
		<i>Hug (2004)</i>	
		<i>Batzuetan atsegin dut bil-bil eginda egotea (2006)</i>	
	5 urtetik gora	<i>Hartz marmartiarra (2014)</i>	
		<i>Osteratxo bat parkean (2013)</i>	
		<i>Hurbil (2008)</i>	
		<i>Ume hura eta agure hura (2002)</i>	
		<i>Erraldoia eta txoria (2003)</i>	
		<i>Berunezko soldadutxoa (1996)</i>	
		<i>Artaldea (2014)</i>	
		<i>El caso de Lorenzo (2010)</i>	
HERIOTZA	3 urtetik gora	<i>Betiko (2005)</i>	
		<i>Baltaxar inoizko astorik bakartiena (2010)</i>	
		<i>Agur, amona! (1995)</i>	
	5 urtetik gora	<i>Algún día (2007)</i>	
		<i>El corazón del sastre (2009)</i>	
		<i>Miss Txatarra (2007)</i>	
		<i>Aitona joan egin da (2003)</i>	
		<i>Jack y la muerte (2012)</i>	
		<i>Ez da erraza katagorri (2003)</i>	
		<i>Aitonaren txalupan (2011)</i>	
		<i>Ama! (2006)</i>	
		<i>La balada del rey y la muerte (2011)</i>	

8. Ondorioak

Finkatutako helburuak bete izan direla esan dezakegu. Hasteko, egindako Marko Teorikoan Haur Literaturaren kontzeptua definitzen saiatu gara hainbat adituen ikuspuntu eta teoria desberdinak azalduz (Etxaniz, 1966), (Hunt, 1995), (Igerabide, 1996). Horretarako, Haur Literaturaren jatorria (Lluch, 2010) eta izan ditzaken funtzioak (Colomer, 2010) azaltzen saiatu gara arloak haurren garapenean duen garrantzia ondorio gisa ateraz.

Bestalde, aurretik aipatu dugun moduan, psikoanalisisan murgildu gara (Bettelheim, 1977). Era berean, ipuinen sinbolismoa aztertu dugu (Jung, 1995), (Freud, 2014) eta korrante honen aplikaziorako metodo bat aztertu dugu, psikodrama sinbolikoa (Henche Zabala, 2008), hain zuzen. Horrela, ondorioztatu da ipuinek funtzio terapeutikoa dutela.

Horren haritik, haurrei baliabide esanguratsuak eskaintzeak duen garrantziagatik (Jordi, 1995), egindako ikerketa liburu sendagarrien bilduma sortzera bideratuta egon da. Hautaketa ahalik eta egokiena izateko, kalitatezko literatura hautatzeko irizpideak zehaztu eta jarraitu dira (Colomer, 2010, Lluch, 2010), eta hauek argitzeko behaketa tresna propio bat sortu da. Horrela, ipuin sendagarriak aukeratzeko erreminta sortu da.

Bukatzeko, ondorio nagusi bezala, egindako marko teorikoa oso baliagarria izan da Haur Literaturan sakontzeko, honek dituen aukerak eta funtzioak ulertzeko. Eta, ondorioz etorkizunean haurrekin lantzeko erabilgarria izango den proposamen bat egiteko, ehun liburu sendagarrien inbentarioa.

Hutsuneei begira edota hobetze beharrei begira, aukeratutako liburu bakoitzean sakontzea eta psikodrama saioak garatzeko proposamen zehatzak egitea interesgarria izango litzateke irakurketa jarduera esanguratsua bihurtu ahal izateko eta ipuinen erabilera terapeutikoa Haur Hezkuntzako geletan islatzeko.

Bibliografía

- Aguiriano, A. (2006). Haur liburutegiak eta irakurketa eskola eta kalearen artean. *Behinola*, 14, 21-26
- Amoros, A. (1989), *Introducción a la literatura*. Madril, Espainia: Castalia
- Arnal, T. (2012). Tabuak Haur Literaturan. Eusko Jaurlaritza: *Ermuko Udal liburutegia*
- Arratibel, J. (1995) Oroitzearen ederra, *Euskaldunon Egunkaria*, 1995 .12 .07.
- Arrieta, Y. (2005) *Gatzaren atzetik. Mari-Xor*. Autor- Editor.
- Bettelheim, B. (1977). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Bartzelona, España: Crítica
- Brunner, J. (1990), *Actos de significado. Más allá de la revolución cognitiva*. Madrid, España: Alianza
- Carreras, C., Martínez, C. eta Rovira, T. (1997), *Organización de una biblioteca escolar, popular o infantil*. Barcelona, España: Paidós
- Chaos Lloret, C. (2006), Haur liburutegiak askatasun gune. *Behinola*, 14, 34-42
- Colomer, T. (2010), *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid, España: Síntesis.
- Cooper, J. C. (1986): *Cuentos de hadas. Alegorias de los mundos internos*. Málaga, España: Sirio
- Duran, T. (2009), *Álbumes y otras lecturas. Análisis de los libros infantiles*. Barcelona, España: Ediciones Octaedro- Rosa Sensat
- Eliade, M. (2011), *El mito del eterno retorno: arquetipos y repetición*. Madrid, España: Alianza editorial
- Etxaniz, X (1996), Euskal Haur eta Gazte literaturaren historia. UPV-EHU: Psikodidaktika programa.
- Freud, S. (2014), *Esquema del psicoanálisis y otros escritos de doctrina psicoanalítica*. Madrid, España: Alianza editorial
- Gil, L. (2004), *Therapia: la medicina popular en el mundo clásico*. Barcelona, España: Triacastela
- Hannoun, H. (1977) *El niño conquista el medio*. Buenos Aires, Argentina: Ed. Kapelusz, 24
- Henche Zabala, I. (2008) *Educación en valores a través de los cuentos*. Buenos Aires, Argentina: Bonum
- Hunt, P . (1995) *Children's Literaturean Illustrated History*. Oxford : Oxford University Press .
- Igerabide, J.K. (2002) Adierazpen sinbolikoa tradizioko ipuinetan: Marixor. *Behinola: Haur eta Gazte Literatura*, 52- 64
- Jordi, C. (1995) *Guía práctica de la biblioteca escolar*. Salamanca, España: Fundación Germán Sanchez Ruipérez
- Juliano, D. (1992) *El juego de la astucia*. Madrid, España: Horas y horas

- Jung, C. G. (1995). *Los arquetipos y lo inconsciente colectivo*. Barcelona, España: Trotta
- Lasarte, G. (2013) *Istorioak, amandreen ipuinak*. Vitoria-Gasteiz, España: Escuela de Magisterio, UPV-EHU
- Lekuona, J. M. (1982). *Ahozko Euskal literatura*. Donostia, España: Erein
- Lluch, G. (2010). Ahozko tradizio kontakizunak: tradizio batekiko leialtasuna. *Behinola: Haur eta Gazte Literatura*, 15-25
- Lluch, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes: los comités de valoración en las bibliotecas escolares y públicas*. Barcelona, España: Trea
- Moreno, V. (2003). *Leer con los cinco sentidos*. Pamplona, España: Editorial Pamiela
- Pérez Jiménez, P. eta Wildlöcher, D. (1969) *Biblioteca práctica de pedagogía, psicología y psicopatología de la infancia*. Barcelona, España: Paideia
- Satrustegi, J. (2002), Ipuin miresgarrien mezu ezkutuak. Bilbo: *Behinola: Haur eta Gazte Literatura*, 1-15
- Taberero, R. (2005) *Nuevas y viejas formas de contar. El discurso narrativo infantil en los umbrales del siglo XXI*. Universidad de Zaragoza, 142-157